



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

## **UDALBATZAK 2020KO MARTXOAREN 5EAN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

### **BERTARATUAK:**

Igor Zapirain Lizarribar EH BILDU  
Nagore Zubillaga Garmendia EH BILDU  
Luis Lasa Muñagorri EH BILDU  
Agurtzane Arribillaga Uranga EH BILDU  
Aitor Jimenez Iparraguirre EH BILDU  
Cristina Martinez Arnaiz EH BILDU  
Maria Iciar Jauregui Huarte EAJ-PNV  
Juan Luis Cid Conde EAJ-PNV  
Rodrigo Vilar Caballero Arellano EAJ-PNV  
Juan Maria Caballero Arellano EAJ-PNV

### **IDAZKARIA :**

*Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

Ibarran, **bi mila eta hogeiko martxoaren bostean** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak ez-ohiko bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Igor Zapirain Lizarribar alkate jauna izan zen, eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave.

Idazkariak hitza eskatzen dio Alkateari bi azalpen egiteko.

3. puntu bezala barneraturik dagoen Idazkariak 2019 urterko fiskalizazio txostenaren inguruan burutzen duen txostenaren berri ematea. Kontuhartzaileak bere fiskalizazio txostenean barneratuko duela txosten honetan adierazten dena azaldu dio Alkateari. 2568/1986ko Errege Dekretuak bere 91. Artikuluan aukera ematen du Alkateak edo baita zinegotziek eskatuta puntu hau gai zerrendatik kanporatzeko. Idazkariak bozkatzeko eskatzen du eta Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

**ERABAKITZEN DU**

2020/03/05

1



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

**BAKARRA:** Kanporatzea gai zerrendako 3. Puntua Idazkariak 2019 urterko fiskalizazio txostenaren inguruan bututzen duen txostenaren berri ematea Kontuhartzaileak dagoeneko aurkeztu duen txostean barneratu baitu.

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

**1.- Aurreko Udalbatza Bilkuren akten onarpena**

- 1.1 2019ko abenduak 19ko ez-ohiko bilkura
- 1.2 2020ko otsailaren 18ko ez-ohiko bilkura

**2.- 2020ko otsailaren 13an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpenen inguruko erabakiak**

1. 2020 KPOL0017 espediente bidez izapideturiko kreditu aldaketa onartzea
2. 2020 KAL0002 espediente bidez izapideturiko 1/2020 kreditu gehigarriaren onarpena
3. Eskuladean jarduera ekonomikoak garatzeko lurzoruaren udal sustapen publikorako administrazio arteko hitzarmenetik (2007ko maiatzaren 7koa) bereizi edo deslotzea.
4. Likidazio txostenaren kontu ematea
5. 2019 urteko fiskalizazio txostenaren kontu ematea

**3.- Udalbatzaren bilkuren egutegiaren aldaketa**

**4.- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Ibarra Udalak sinatu beharreko, Polizia-Koordinazio eta Elkarlanaren arloan hitzarmena sinatzea (TETRA).**

**5.- galderak eta eskaerak**

**LEHENA:**

**1.- AURREKO UDALBATZA BILKUREN AKTEN ONARPENA**

**1.1- 2019KO ABENDUAREN 19AN EGINDAKO EZ-OHIKO UDALBATZAREN AKTAREN ONARPENA**

Irakurri da 2019ko abenduaren 19ko ez-ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

**BAKARRA:** Onartzea, 2019ko abenduaren 19ko ez-ohiko bilkurako akta

**1.2- 2020KO OTSAILAREN 18AN EGINDAKO EZ-OHIKO UDALBATZAREN AKTAREN ONARPENA**

2020/03/05



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Irakurri da 2020ko otsailaren 18ko ez-ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

**BAKARRA:** Onartzea, 2020ko otsailaren 18ko ez-ohiko bilkurako akta

**BIGARRENA:**

**2.- 2020KO OTSAILAREN 28AN OSPATURIKO OGASUN ETA PERTSONAL BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENEN INGURUKO ERABAKIAK**

**2.1 2020 KAPOL 0017 ESPEDIENTE BIDEZ IZAPIDETURIKO KREDITU ALDAKETA ONARTZEA**

Ikusirik Ibarra udalak legealdi honetan inbertsioei aurre egin nahi diela, eta horretarako zorpetzearen aukera azal daitekeela.

Kontuan harturik gastu arauaren betetzeari lotuta egoten dela zorpetze gaitasuna.

Ikusirik gastu araua gainditzen duen egoera baten aurrean dagoela udal hau, eta hori horrela izanda bere etorkizuneko objetiboak gauzatu ahal izateko, 2020ko hasierako aurrekontuan jasotako zenbait gasturen behar eza ikusi dela.

2020ko otsailaren 28an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik , Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

**BAKARRA-** Ondorengo kreditu aldaketa burutzea, 118000 euroko gastuaren bajak burutuaz:



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

1	<a href="#">1 03.132.00.121.02 2020 (16)</a> BERARI OSAG: UDALTZAINGOA	Gutxipena	30.000,00
2	<a href="#">1 03.241.00.131.01 2020 (52)</a> ALDI BATERAKO LABORAL:	Gutxipena	38.000,00
3	<a href="#">1 09.338.00.480.00 2020 (267)</a> FESTEI LOTUTAKO DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA	Gutxipena	8.000,00
4	<a href="#">1 08.162.30.421.00 2020 (238)</a> TRATAMENDUA ZABORRA TRANFERENTZIA	Gutxipena	30.000,00
5	<a href="#">1 07.231.00.490.01 2020 (224)</a> TISHLA DIRULAGUNTZA NOMINATIVOVA TISHLA	Gutxipena	12.000,00

## 2.2 2020KAL0002 ESPEDIENTE BIDEZ IZAPIDETURIKO 1/2020 KREDITU GEHIGARRIAREN ONARPENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

2020ko otsailaren 28an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

**LEHENA.**- Ondorengo kreditu aldaketa burutzea, kreditu gehigarriari dagokiona zehazki:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 09.338.00.226.06 2020	FESTAK: HERRIKO JAIK	49.000,00	27.000,00	76.000,00
1 09.334.20.481.00 2020	TRANSF: ALURR DANTZA TALDEA	15.000,00	4.000,00	19.000,00
1 09.337.20.226.06 2020	JARDUERAK: GAZTERIA	9.000,00	5.000,00	14.000,00
1 08.165.00.623.02 2020 2020/03/05	UDAL INBERTSIO ELEKTRIKOAK	0,00	60.000,00	60.000,00



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

1 06.323.10.219.01 2020	MANTENTZEA: E. ARRESE 13	100,00	30.000,00	30.100,00
1 06.450.00.210.00 2020	KONPONKETAK: BIDE- AZPIEGITURA	15.000,00	25.000,00	40.000,00
1 06.153.40.219.00 2020	KONPONKETAK: HIRI- EKIPAMENDUAK	15.000,00	5.000,00	20.000,00
1 03.920.00.227.08 2020	UDAL PLANTILAREN DIAGNOSIA	6.000,00	2.000,00	8.000,00
1 03.337.00.435.00 2020	COMUNIDADES DE BIENES GASTUAK	30.000,00	5.000,00	35.000,00
1 03.920.00.226.04 2020	AHOLKULARITZA ZERBITZUAK	23.000,00	15.000,00	38.000,00
1 07.231.00.481.01 2020	EUSKAL FONDOA DIRULAGUNTZA NOMINATIVOA	3.500,00	2.500,00	6.000,00
1 05.450.00.643.01 2020	HIRIGINTZA PROIEKTU ERREDAKZIOA	10.000,00	15.000,00	25.000,00
1 10.324.00.481.00 2020	TRANSF: HAZI ETA HEZI	128.000,00	13.000,00	141.000,00
1 10.341.01.481.01 2020	LABURU DIRULAGUNTZA	39.000,00	9.750,00	48.750,00
1 10.341.03.481.00 2020	SENDI EKINTZA LAGUNTZA NOMINATIBOA	5.500,00	1.375,00	6.875,00
1 10.341.04.481.00 2020	SOKATIRA LAGUNTZA NOMINATIBOA	9.500,00	2.375,00	11.875,00
1 02.133.00.221.05 2020	ARROPA ETA OSAGARRIAK	6.000,00	6.000,00	12.000,00
1 10.341.02.481.00 2020	BELABIETA LAGUNTZA	12.000,00	3.000,00	15.000,00
1 07.231.00.481.03 2020	EUSKAL FONDO KIDE KUOTA	0,00	1.500,00	1.500,00
1 08.170.00.226.06 2020	JARDUERAK: INGURUGIROA	6.000,00	6.000,00	12.000,00
1 04.011.00.933.01 2020	MAILEGUAK AMORTIZATZEA	112.847,20	66.199,09	179.046,29
<b>1 04.929.00.500.01 2020</b>	KREDITU GLOBALA	0,00	40.000,00	40.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>494.447,20</b>	<b>344.699,09</b>	<b>839.146,29</b>

2020/03/05



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 04.920.00.870.01 2020	2019 GERAKINA GEHIKUNTZETARAKO	344.699,09
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>344.699,09</b>

**BIGARRENA.-** GAO n argitaratzea, 15 eguneko epea ezarriaz dagozkion alegazioak aurkezteko.

### **2.3 ESKUALDEAN JARDUERA EKONOMIKOAK GARATZEKO LURZORUAREN UDAL SUSTAPEN PLUBLIKORAKO ADMINISTRAZIO ARTEKO HITZARMENETIK (2007KO MAIATZAREN 7KOA) BEREIZI EDO DESLOTZEA**

2007ko maiatzaren 31n Tolosaldeako hainbat udalek sinatu zuten administrazio arteko hitzarmena, eskualdean jarduera ekonomikoak garatzeko lurzoruaren udal sustapen publikorako.

Udalen arteko hitzarmen hori sinatu ondoren, eskualdean egin zen jarduketa bakarra Tolosa eta Ibarra artean dagoen Apattaerreka industrialdearen 1 fasearen kudeaketa izan zen.

Aipatutako eskualde-garapen horren ondorioz, eta hitzarmenaren bosgarren klausulan ezarritakoa betez, Ibarra udalak lortutako tributuko hitzarmena sinatu zuten udalen artean banatzeari ekin zion, bakoitzaren portzentajeen arabera.

Azken urteotan, lehen esan bezala, ez da bestelako eskualde mailako garapenik izan eta ez da hitzarmenean jasotako bete. Horrek egoera bidegabea sorrarazi dio Ibarra Udalari eta udal jasotzaileei, berriz, bidegabe aberastea. Ondorengo puntuak dira, bereziki, bete ez diren hitzarmen puntuak:

1.- Gainerako udalei ordaindutako kopuruak ez ziren soilik 2008-2013 bitartean sortutako tributuei zegozkienak (Ondasun Higiezin Zerga, jarduera Ekonomikoen zerga, EIOZ), hitzarmena sinatu ondorengoak, baizik eta aurreko urteetan sortutakoak (2005, 2006 eta 2007), azken hauek erreserbatu egin ziren eta hitzarmena sinatu ondoren, ordaindu.

Beraz, hitzarmena sinatu ondoren ordaindu beharreko kopuruez gain, sinatu aurrekoak ere ordaindu egin ziren, horretarako erreserbatuta zeudenak, eta beraz, atzeraeragin irizpidea

2020/03/05



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

aplikatu zen, hitzarmenean jaso gabea, eta ordainketan horiek, hitzarmenean erabakitakotik kanpo daude.

2. Udalei tributu izaerarekin ordaindutako kopuruak, ez ziren bideratu eskualde mailako lurzoruaren ondarrera, udal jasotzaile bakoitzak bere ohiko aurrekontuan txertatu zituen, eta Apattaerrekaz gain, ez da egon bestelako eskualde-garapenik, ez jasotako diruaren erreserbarik zoria eskuratzeko. Eta 12 urte igaro dira hitzarmena sinatu zenetik.

Egitate horrek agerian uzten du udal jasotzaileak bidegabeki aberastu zirela Ibarako udalari zegozkion diru-sarrerren kontura, honek uko egin baitzion bere sarrerren zati bati.

Paralelokoi Merkataritza Sozietate bat eratu zen, udalek osatua, zeinetan udal horiek kapital soziala jarri zuten hitzarmenean jasotako proportzioan, baina udal horiek errekuperatu dute dirua, eta areago, etekinen bat atera diote kapital sozial modura jarritako diruari, urte horietan Ibarako udalak ordaindutako tributuei esker.

3. Tributu banaketa horrek berekin zekarren udala etorkizuneko diru-sarrerekin lotzea, zenbateko zehaztugabeekin, aurrekontuak prestatzean aurreikusi beharrekoak, urte anitzeko gastuen konpromiso maila 4 urtekoa denean. (Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra, 47 artikulua).

4. Bosgarren klausularen a) atalaren eta seigarren klausularen arabera, beharrezko zen Jarraipen Batzordea eratzea eta Barne Erregelamendu bat onartzea, funtzionamendu arauak eta akordioak hartzeko arauak jasoko zituena, baina batzorde hori ez da inoiz eratu. Eta hori hitzarmena ez betetzea da.

5. Jarraipen batzordea ez eratzeaz eta funtzionamenduaren Barne Erregelamendua ez sortzeaz gain, Batzordearen zeregina zen lurzoria sustatzea eta eskuratzeko, eta horrez gain, bere zereginen artean zegoen bosgarren klausularen a) letran jasotakoa: banaketa kuota adostea, inolaz ere, parte-hartze portzentajea baino handiagoak. Horrenbestez, batzordea eratu gabe zegoenez, ezin izan ziren banaketa-kuota horiek zehaztu, eta ez zuten zertan bat etorri udal bakoitzaren parte-hartzearen gehieneko portzentajearekin; halere, banaketa-akordiorik egon gabe ere, tributuak ordaintzeari ekin zitzaion.

6. Bosgarren klausularen b) atalak xedatzen du tributuen banaketa akordioan, batzordeari zegokiona berez, baldin eta kontserbaziorako entitate urbanistikoko bat eratzen bazen (Hori da Apattaerrek 1 Fasearen kasua) tributuen banaketa luzatu egingo zela kontserbazio entitate horrek irauten zuen gehieneko epean.



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Hau da, kontserbazio entitatearen 20 urteetan, Ibarak bere tributuak banatu behar zituen, udal jasotzaileentzat etekina izanez, eta horiek beren diru-sarrerak lurzoru berrien kudeaketarako erreserbatu gabe. Horrek agerian uzten du beste behin, udal jasotzaileen bidegabeko aberastea, beren diru-sarrerak eskualdeko inbertsioetara bideratu gabe; banatutako tributu horien helburua, berriz, sortu gabe geratu zen batzordeak erabaki behar zuen.

Esan behar da Ibarako udala kaltetua izan dela, kontserbazio entitatea mantentzeko epea amaituta, 2029an amaituko da, Ibarako udala izango zen poligonoa mantentzearen arduradun eta horrek kostu ekonomiko handiak ditu. Gainerako udalek ez zuten jarraituko tributuen dirua jasotzen baina ez zuten funtsik jarriko eskualdeko poligonoaren mantentzen. Beraz, Ibarako udalak hartu beharko lituzke bere gain mantentze kostu guztiak, nahiz eta eskualde mailako sustapena izan.

7. Hitzarmenaren hamargarren klausulari dagokionez, hitzarmenaren iraupen epea "iraupen mugagabea" jasotzen da, eta beraz, ez dago indarraldirik eta horrek 40/2005 legea urratzea dakar, eta baita martxoaren 19ko 4/2003 Foru Araua ere, non eskatzen baita lehen kasuan 4 urteko indarraldia beste lau urtez luza daitekeena.

Aurreko guztia ikusita, argi eta garbi geratzen da bere garaian sinatutako hitzarmena betetzean, Ibarako udalak tributuak banatzean, hasieran udalari zegozkion kopuruak jaso gabe utziz, eta kopuru horiekin eskualde jardueretan inbertsiorik egin gabe, eta 12 urte baino gehiago igaro direnean hitzarmena sinatu zenetik; ikusita hitzarmena ez dela bete, horrek guztiak dakar Ibarako Udalak beharrezkotzat jotzea hitzarmenetik desbinkulatzeari, hitzarmen horren zortzigarren klausulari lotuz. Klausula horrek aurreikusteen du desbinkulatzeko aukera edozein unetan, hitzarmena indarrean sartu zenetik hamaika urte igaro direnean, betiere, Udaltzarak hala erabakitzen badu.

2020ko otsailaren 28an ospaturiko Ogasun eta Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udaltzarak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

#### ERABAKITZEN DU

**LEHENA.-** Ibarako udala desbinkultazeari eskualdean jarduera ekonomikoak garatzeko lurzoruaren udal sustapen publikorako administrazio arteko hitzarmenetik, zeina 2007ko maiatzaren 31 sinatu baitzen. Desbinkulatzeari hori erabaki hau hartzen denetik izango da eraginkor.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau jakinaraztea bere garaian hitzarmena sinatu zuten udal guztiei.

**HIRUGARRENA.-** Osoko bilkurara luzatzea akordioa hartzeko.

2020/03/05





**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

## **2.4 LIKIDAZIO TXOSTENAREN KONTU EMATEA**

Kontu ematen da Kontuhartzaileak otsailaren 28an buruturiko likidazio txostena. Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

## **2.5 2019 URTEKO FISKALIZAZIO TXOSTENAREN KONTU EMATEA**

Kontu ematen da Kontuhartzaileak otsailaren 28an buruturiko 2019 urteko fiskalizaio txostena.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

## **HIRUGARRENA**

### **3.- UDALBATZAREN BILKUREN EGUTEGIAREN INGURUAN ERABAKIA**

2019ko uztailaren 9an buruturiko Udalbatzak onartu zuen Udalbatzaren bilkuren aldizkotasuna. Ikusita, euskarazko aktaren akordioa eta gaztelerazko itzulpenean ez dela erabaki berdina hartzen hau zuzentzeko beharra dago.

Euskarazko akordioan honakoa adierazten zen: Ibarra Udaleko Udalbatzarren ohiko bilkura 2 hilabetetik behin egitea, hile bakoitietan bigarren asteko ostegunean arratsaldeko 19:00etan eta ez-ohiko bilkurak gaiak aldiz; hala eskatzen duenean, Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen laurdenak hala eskatzen duenean edo udalburuak hala erabakitzen duenean egingo dira.

Gaztelerazkoan aldiz honakoa adierazten zen: Celebrar las sesiones plenarias una vez cada dos meses, el segundo jueves de los meses impares a las 19:00 horas. Las sesiones extraordinarias se celebrarn cuando el tema a tratar lo exija, a petición de la cuarta parte de los miembros que constituyen la corporación o cuando el presidente de la corporación lo estime necesario.

Gaia adierazi ondoren Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

### **ERABAKITZEN DU**

LEHENENGOA: Onartzea zuzenketa eta ondorioz Ibarra Udaleko Udalbatzarren ohiko bilkura 2 hilabetetik behin egitea, hile bakoitietan bigarren ostegunean arratsaldeko 19:00etan eta ez-ohiko bilkurak gaiak aldiz; hala eskatzen duenean, Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen laurdenak hala eskatzen duenean edo udalburuak hala erabakitzen duenean egingo dira.

2020/03/05



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

**BIGARRENGOA:** erabakia GAOn eta udal web orrialdean argitaratzea.

## **LAUGARRENA**

### **6.- EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK ETA IBARRAKO UDALAK SINATU BEHARREKO, POLIZIA-KOORDINAZIO ETA ELKARLANAREN ARLOAN HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA (TETRA)**

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailak, 2020ko otsailaren 20an proposamena egiten dio Ibarra Udalari (620 sarrera erregistro zenbakiarekin) Lankidetzeta hitzarmena sinatzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta Ibarra Udalaren artean Polizia Koordinazio eta elkarlanaren arloan elkarlanean aritzeko.

Esparru hitzarmen honen xedea da Polizia gorputzen arteko koordinazioa, lankidetzeta eta elkarlaneko moduak eta prozedurak arautzea. Informazioa-trukea ahalbidetzea, eta batera jarduteko ahalbidetzeko irizpide, prozedura eta bitartekoak ezartzea. .

Hitzarmena akordio sinatzen den egunean indarrean sartuko da (Ibarra Udalak udalbatzan onesten duen egunean) eta 4 urtez egongo da indarrean. Epea agortu aurretik aukera egongo da luzapen bat adosteko beti ere ezingo delarik 4 urte baino gehiagokoa izan.

Hitzarmena aztertu ondoren, Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

#### **ERABAKITZEN DU**

**LEHENGOA.** Onartzea Ibarra Udalaren eta Euskal Autonomia erkidegoaren Administrazioaren artean Polizia Koordinazio eta elkarlanaren arloan elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatzea.

**BIGARRENGOA:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakia

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita bost direnean. Nik, idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko

Ibarra Idazkaria

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

2020/03/05



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

2020/03/05

11